

# PLAN ESTRATEGIKOA GK RECYCLING

2020-2024

Gipuzkoako berrerabilpenaren eta birziklapenaren



# /Edukien taula

## Sarrera

4

## 1. Multzoa

6

GK Recycling

GK Recycling-premiak

Erreferente nazionalak eta internazionalak

## 2. Multzoa

20

Helburuak 2020-2024

Jarduteko ardatzak

Ekintzak

# /Sarrera

Ondorengo orrialdeetan plan estrategiko bat aurkezten da, asmoa duena tresna bat izatea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumena eta Obra Hidraulikoak Departamentuak bultzatua, GK Recycling birziklapen-klusterraren jarduerak, irudia eta egiten duen lana irmotzen eta sustatzen laguntzeko.

Modu horretan bete nahi da erakunde hau eratzean finkatu zen helburua: **ekonomiaren hazkundearen palanka eta eragile izatea, enplegua sortuko duten jasangarritasun-politikak martxan jartzea bultzatuko duena, enpresen, administrazioen eta herritarren arteko lankidetzan oinarritutako eredu baten bitartez.**

Plan hau artikulatzeko, klusterraren egungo egoeraren azterketa egin da, baita klusterraren egungo premien azterketa txiki bat ere. Azterketa horiek bazkideekin partekatu dira eta egiaztatu ahal izan dugu Gipuzkoan birziklapenaren industria bultzatzeko plataforma sendoa eta definitua sortu dela, azken urteotan sortu eta garatu diren ekintzei eta tresnei esker.

Hortaz, esan daiteke, irmotzen eta helduaroan dagoela gaur egun GK Recycling klusterra, eta horrek eramaten gaitu sinestera orain dela momentua harago begiratzeko eta epe luzeko plan bat sortzeko. Hala, egituratu dugun planak 4 urtera begiratzen du dagozkien helburuekin eta jarduteko ardatzekin, etorkizun-ikuspegi bat izateko eta bazkideek beren eguneroko jardunean egiten duten lana bultzatzeko.

Konpromiso horrek plan horren garapenerako eta aldaketarako ezinbesteko eragile bihurtzen ditu bazkideak. Gidalerro eta helburu zehatz batzuk dituen lanerako oinarri bat da, bazkideei aurkeztu zaiena eta haien ekarpenekin osatuko dena, betiere GK Recycling klusterreko kideen beharretara ahalik eta gehien egokitutako plan estrategikoa sortuko bada.

Horretarako, bi multzotan egituratu dugu plana. Lehenak klusterraren oraingo egoerari, bere helburuei, oraingo premiei eta, testuinguru moduan, erreferente internazionaleri egiten die aipamen. Bigarrenak sakonetik heltzen die klusterrak jarraitu beharreko jardute-lerro nagusiei, bere sorkuntzaren xede den lanean jarraitzeko.

**/GK Recycling**  
Plan estrategikoa  
2020-2024





# /GK Recycling gaur

Izugarri handia da birziklapenari dagokionez Gipuzkoako sektore industrialak duen giza ahalmenaren balioa, baita ingurumenari eta teknologikoari lotuta ere. Ekosistema industrialak hondakinen kudeaketan eta aprobetxamenduan egiten ari den lana ezinbestekoa da. Lan horri esker sortzen dira lehengai eta produktu berriak, berekin ekartzen dutenak aurrezteko kostu handiko erauzketa-prozesu oso kutsatzaileen bitartez lortzen diren baliabideetan. Horregatik, beharrezkoa da kontsumo-lerro berrietan oinarritutako ekonomia bat bultzatzea eta sustatzea, hondakinen bolumena murriztu eta ekonomia zirkular baterantz aurrerapausoak emateko.

Lehengaien erauzketaren murrizketa, energia-kontsumoaren aurrezpena eta negutegi-efektuko gasen emisioarena, hondakindegia kentzea edo gutxitzea, produktu edo lehengai berriak sortzea, edo hondakinen bizialdia luzatzea haiek berrerabiltzean; horiek dira birziklapenaren eta berrerabilpenaren kontzeptua definitzen duten balioetako batzuk, baita horrek berekin dakartzan onura ugariak ere gizartean, ekonomian eta lan-eremuan. Horrek guztiak etorkizun handiko sektore bilakatzen du, kontsumo jasangarriaren prospekzio nabarmena izango duena gerora.


Esparru horren barruan, **Gipuzkoako sektorearentzako ikusgarritasun-tresna bat izatea, enpresen, instituzioen eta zentro teknologikoen arteko lankidetzaren plataforma bat, hain zuzen ere sektoreko eragile desberdinen arteko partaidetza-nexo bat sortzea ahalbidetzeko**. Izan ere, bultzada berri bat izango da ekonomiarentzat, baita I+G+b lerro berriak irekitzeko ere, produktu birziklatu berriak sortu eta berrikuntzarako ardatz eta ibilbide berriak definitze aldera.

Paradigma horiek guztiak ezinbesteko bilakatu dute Birziklapen Klusterra sortzea, ingurumenari mesede

egingo dioten politikak babesteko eta, horrela, ekonomia zirkular baten parametroetarantz aurrera egiteko helburuz. **Horrek aukera ematen du ekonomiaren hazkundearen palanka eta eragile izateko, enplegua sortzen duten jasangarritasun-politikak martxan jartzea bultzatuko duena, gure eskualdeko enpresen, administrazioen eta herritarren arteko lankidetzan oinarritutako eredu baten bitartez.**

Gaur egun, **62 erakundek osatzen dute GK Recycling; horietatik 36 enpresak dira, 7 zentro teknologikoak eta unibertsitateak dira, 8 fundazioak dira eta 11 ingurumen-aholkularitzak dira.**

ENPRESAK





## FUNDAZIOAK



Donostia



## UNIBERTSITATEAK ETA ZENTRO TEKNOLOGIKOAK




tecnun  
Universidad  
de Navarra  
Escuela de Ingenieros



GIPUZKOAKO  
INGENIARITZA  
ESKOLA  
ESCUELA  
DE INGENIERÍA  
DE GIPUZKOA

## AHOLKULARITZAK



**TEKNIMAP**

ENERGÍA Y MEDIO AMBIENTE

# GK Recycling- helburuak

- Ekonomia eta birziklapenerako I+G+b lerro berriak, produktu birziklatu berrien sorkuntza eta materialen kontsumoaren jasagarritasuna sustatzea.
- Hondakinen kudeaketa-politikan eragina izatea, ekonomiari eta ingurumenari dagokienez berrerabiltzearen eta birziklatzearen eredu jasagarriak bultzatuta.
- Berrerabiltzearen eta birziklatzearen arloan enplegu-nitxo berriak arakatzea, eta ekonomia zirkularraren garrantzia indartzea.
- Komunikazio- eta partaidetza-nexo bat izatea sektoreko eragile desberdinen artean.
- Informazio estrategikoa hedatzeko tresna bat izatea.
- Lankidetzeta-plataforma bat izatea enpresen, instituzioen eta zentro teknologikoen artean.
- Produktu birziklatu berrien sorkuntza sustatzea.
- Sinbiosi enpresariala sustatzea berrikuntza-ardatzak definitzeko.
- Berrikuntzako proiektu pilotuak martxan jartzea.
- Gizartearen sensibilizazioa eta hondakina baliabide bihurtzeko dituen ahalmenei eta aukerei ikusgarritasuna ematea.

# /GK Recycling- premiak

GK Recycling klusterrak eta berau osatzen duten enpresen konpromisoak, lanak eta dedikazioak aurrerapauso handiak ematea ahalbidetu dute, birziklatzearen eta berrerabiltzearen sektorean diharduten Gipuzkoako enpresen lehia eta egoera hobetzeko.

Azken urteetan hainbat ekintza burutu dira horretarako: nazioarteko topaketak, bekak eta diru-laguntzak sustatzea, hitzaldiak, tailerrak, kontzientziazio-kanpainak eta abar. Zeren eta, lehen aipatu dugun bezala, irtotze-fasean baitago GK Recycling.

Dena den, luzea da oraindik egiteko geratzen zaigun bidea eta oraindik ere premiak ikusten dira, erantzun beharrekoak, klusterrak eta beraz bere enpresa kideek hazten jarraitzeko. Hala, premia horiek hartuko dira kontuan datozen lau urteetarako helburuak planteatzeko garaian, baita estrategia honetarako ardatz estrategikoak ere.

Dena dela, ez dugu ahaztu behar klusterraren helburu nagusia dela birziklatzearen ekosistemari eta industriari euskarria eskaintzea. Hori dela eta, premia horiek bazkideekin partekatu eta eztabaidatu dira, GK Recycling klusterretik benetako premiak artikulatzeko, baita premia horiek estaltzeko ahalik eta gehien egiteko ere.

Hauek dira antzeman diren premietako batzuk:

- **Kanpoaldean erreferente gisa hartuak izatea, bai klusterrak bai bazkideek orain arte egindako lana balioan jarrita. Herritarren artean kontzientziazioa hobetzea eta bultzatzea birziklatzearen, ekonomia zirkularraren eta gure ohiturak aldatzearen inguruan, ingurumena hobetzearen.**
- **Harreman-sarea hobetzea sektoreko enpresen, erakundeen eta eragileen artean, berrikuntza-proiektu berriak aurrera eraman ahal izateko. Intra-kluster proiektuen sorkuntza bultzatzea, baita proiektu publiko/pribatuak ere instituzio publikoekin.**
- **GK Recycling klusterreko bazkideen barne-sailkapena egitea, tipologien eta sektoreen arabera, eta ekintzak, kontaktuak eta prestakuntzak sektore bakoitzerako egokituz eta horien premia zehaztetara egokituz.**
- **Berrikuntza-proiektu berriak gauzatzeko aukera emango duten sektoreko enpresekiko, erakundeekiko eta eragileekiko harreman-sarea hobetzea.**
- **Erreferente diren eta garatzen ari diren sektoreetan eta herrialdeetan nazioko eta nazioarteko aukerak bilatzea.**
- **Kluster barruko proiektuak eta proiektu publiko-pribatuak bultzatzea, eta berrikuntza irekia eta bazkideen arteko elkarlana sustatzea.**
- **Bazkideei zuzendutako zeharkako arloetako jardunaldiak, prestakuntzak eta aholkularitza eskaintzea, egunean egon daitezten sektorearen berrikuntzen arloan, araudien arloan, legediaren arloan, I+G+b arloan eta lehiakortasuna hobetzeko garrantzitsutzat jotzen dituzten gaietan.**
- **Bazkideekin etengabeko informazio-fluxuari eustiaz arduratuko den trakzio-talde bat sortzearen beharra.**

- Ideiak, esperientziak eta problematikak trukatzeko etengabeko bilera-gune bat sortzearen beharra, bilera-gune horretan bazkide bakoitzak arazoan ebazpenean dituen ezagutzak eskain ditzan: sektore zehatzetarako ad hoc legediak, ziurtagirien ikerketa, eta abar.
- Enpresei hazten lagunduko dieten funtsak bilatzea, eta proiektu propio berriak edo lankidetzakoak sortzea.
- Sektorearen azterketa baten beharra, gure enpresek sortzen dituzten materialak ezagutzeko, gaur egun merkatuan zer irteera duten jakiteko eta etorkizunean ikertu gabeko zer irteera izan ditzaketen jakiteko.
- Hondakinetatik abiatuta sortzen diren material berriak erabil ditzaketen sektoreekin aliantzak sortzeko formulen edo estrategien beharra, material birziklatuak erabil ditzaketen sektoreak aztertuz —horietara egokitzeko eta material edo zerbitzu berriak sortzeko—.
- Enpresen artean, birziklatutako materialak erabiltzearen aukerei eta abantailei buruzko ezagutzak gehitu beharra.
- Gauzatzen diren proiektuen kontrol eta jarraipen handiagoaren beharra.
- Lizitazio publikoetan jardunbide jasangarriak eta birziklatze-jardunbideak sustatzea, eskakizunen, puntuazioen eta beste alderdi tekniko batzuen bitartez.
- Birziklapenaren arloko etorkizuneko zenbatespenetarako estrategiak eta azterketak, bazkideek aurrea hartzeko aukera izan dezaten eta haien produktuak, zerbitzuak edo ekoizpenak etorkizunera egokitzeko aukera izan dezaten.

# /Erreferente nazionalak eta internazionalak

GK Recycling klusterraren helburu nagusia da Gipuzkoako lurraldean birziklapenaren ekosistema eta industria bultzatzen laguntzea. Esan daiteke tokikoa dela bere jardute-eremu nagusia, nahiz eta ezinbestekoa den bideak zabaltzea beste eremu nazional eta internazional batzuetara, sektorea bultzatzeko aurrera eramaten ari diren beste ikuspegi eta esperientzia batzuk ezagutu ahal izateko.

Horregatik, birziklapen-industrian diharduten organismo eta erakunde nazional eta internazional nagusien analisi bat egin da, etsenplu bat eta erreferente bat izan daitezkeen horiena, baita aliatu bat ere sinergiak eta lankidetzak ezartzeko garaian. Eragile desberdinen arteko lankidetzak oinarria da berrikuntza eta lehia bultzatzeko, gure eragileentzat eta klusterrarentzat, orokorrean.



# //Erreferente nazionalak



## Garapen Jasangarrirako Espainiako Sarea (REDS)

Garapen Jasangarrirako Espainiako Sarea 2015eko hasieran eratu zen. SDSNren (Garapen Jasangarri baterako Soluzio Sarea) antena da Espainian. Nazio Batuetako idazkari nagusi ohiak, Banki Moonek, aurrera ateratako ekimen bat da, ideia honi eusten diona: ezagutzazentroak, NBErekin eta enpresen eta instituzioen munduarekin lankidetzan, helburuetan oinarritutako aldaketa baten bultzatzaile izan daitezkeela.

SDSNren zeregina da eremu akademikoko, gizarte zibileko eta sektore pribatuko esperientzia eta baliabide teknikoak eta zientifikoak

mobilizatzea, eta tokian tokiko mailan, maila nazionalean eta globalean garapen jasangarri baterako soluzioak ematea.

REDSren (Espainiako bere antena) helburu nagusia da unibertsiteak, ikerketa-zentroak, enpresak eta gizarte zibila aktibatzea, garapen jasangarriari buruzko arazo praktikoei irtenbidea emateko. REDSek lehentasunezko 4 eremutan oinarritzen du bere lana/jarduna Espainian: energia, ura, biodibertsitatea eta generoa. Madrilgo Unibertsitate Autonomoan du egoitza.

### Helburuak

- Munduko debatean parte hartzea GIHen eboluziorako eta jarraipenerako.
- Gobernuetara laguntzea tokiko, eskualdeko eta nazioko garapen jasangarrirako erronken diagnostikoan, baita garapen jasangarrirako estrategia eta ibilbide sektorialen lanketan ere.
- Garapen jasangarrirako proiektuak, sareko kideek antolatuak, aurkeztea.

### 2018az geroztik egin dituzten jardueretako batzuk dira:

- Hitzaldiak eta tailerrak Biltzarretan
- Ekitaldiak, Kultura eta Jasangarritasuna jardunaldiak, besteren artean.
- Hitzarmenak sinatzea eta elkarraldi politikoak
- Gidak
- Batzar nagusiak eta mahai-inguruak

# //Erreferente internazionalak



## Dutch Waste Management Association (Holanda)

Hondakinak Kudeatzeko Holandako Elkarteak (DWMA) Herbehereetan diharduten hondakin-enpresen interes nazionalak eta internazionalak ordezkatzeko ditu. **50 bazkiderekin** baino gehiagorekin, **DWMA garrantzizko debate-kidea da gobernu-sailentzat, eskualde- eta toki-agintarientzat eta bestelako erakundeentzat.** Holandan dute egoitza nagusia eta bulego bat Bruselan.

Lobby egiten dute Herbehereetan eta Europan merkataritzako giro osasuntsu eta orekatu bat mantentzea lortzeko, eta hondakin-kudeaketa eraginkor, eramangarri eta jasangarri bat sustatzen dute. Horregatik hartzen da garrantzi handiko debate-kidetzat ministerioentzat, gobernuentzat eta erakundeentzat.

Bere egitekoa eta ikuspegia zirkulartasuna nabarmena den etorkizun batean oinarritzen da. Hala, etorkizun horretan ahalik eta hondakin gutxien sortuko da eta materialek, desagertu baino, bizitza berri bat hartuko dute. Gogor ari dira lanean katea osatzen duten maila guztiekin soluzio berritzaileen bila.

Nazioarteko azoketan aktiboki parte hartzeaz gainera, hitzaldi hezigarriak ematen dituzte eta sektorearen egoerari, Europako gidalerroei, emisio-mailei, estatistikei... buruzko unean uneko informazio zabala eskaintzen diete bazkideei eta hedabideei, beren webgunearen, beren aldizkariaren, newsletterren eta sare sozialen bitartez.

Beren lana funtsezko 6 eremutan oinarritzen da: Ekonomia zirkularra, Klima, Europa, Birziklapena eta hondar-materialak, Energia jasangarria, eta Segurtasuna eta osasuna.

Elkartea osatzen duten 50 bazkidek baino gehiagok lanean dihardute prebentzioan, bilketan, garraioan, sailkapenean, garbiketean, prozesaketan, birziklapenean, konpostajearen, hartiduran, hondakin-uren kudeaketan, errausketan eta hondakindegietan.

Erakunde ugarietako kide dira maila nazional eta internazionalen. Maila internazionalen nabarmentzekoak dira: EURIC, BIR, Europako Konpostaje Sarea, Hondakinak Kudeatzeko eta Ingurumen Zerbitzuetako Europako Federazioa,





## The Recycling Association (Erresuma Batua)



The Recycling Association elkarteak **Erresuma Batuetako 80 birziklapen-entresa** baino gehiago ordezkatzen ditu, **urteko 2 milioi tona material birziklatu baino gehiago** sortzen dutenak. Birziklapenaren eta hondakinen eremuan Erresuma Batuan den operadore independenteen sarerik handiena da eta **2 mila milioi liberatik gorakoa da bere urteko fakturazio konbinatua.**

Birziklapenaren kudeaketa eta sustapena babesten dute Erresuma Batuan, **lobbyaren bidez legeria, politikak eta funtzionamendua hobetzeko; gardentasun eta kontzientzia handiago baten alde lan eginez; edo bazkideei jardunbide eta lege-aholkularitza onena emanaz.** Eskualde- eta nazio-mailan, Europan eta mundu-mailan egiten dute lan; kanpainak eginez, harremanak eta aukerak garatuz, edo bazkideei lagunduz jardunbide, aholkularitza operatibo edo lege-aholkularitza onena emanaz.

Elkarte honetako kideek batik bat Erresuma Batuetako birprozesatzaileei eskaintzen diete material birziklatua, baina baita mundu osoko beste herrialde batzuetakoei ere. Horrek aukera ematen die fabrikatzaileei material birziklatu jasangarriak erabiltzeko, murriztu egiten du behar ez diren hondakindegien kopurua eta gutxitu egiten du erabilera bakarreko produktuekiko mendekotasuna. Material gehienetara iristen da beren estaldura.

Nabarmentzekoa da material birziklagarrien beren dibisio komertziala: IWPP LTD (Independent Waste Paper Producers Ltd).

Dibisio horrek merkataritza-zerbitzuak eskaintzen dizkie elkarteko kideei. Mota guztietako materialak merkaturatzen lan egiten dute, kalitate desberdinetako paperetik hasi eta plastikoa edo metalak bezalako materialetaraino. Gainera, adituen laguntza eskaintzen dute esportazio-gaietan, betiere materiala ibilbide

## Belgikako Lehengoratzeko Konfederazioa (Belgika)



Belgikako enpresen elkarte bat da, metal ferrosoak eta ez-ferrosoak, papera eta kartoia, ehunak eta plastikoak lehengoratzen eta birziklatzen diharduten enpresen sektorea ordezkatzen duena. Helburutzat du bere kideen interesak ordezkatzea gizartearen, ekonomiaren, legegintzaren eta ingurumenaren eremuetan. Bere antolakundeak 200 enpresa elkartu baino gehiago ditu eta 14 pertsonak osatutako talde batek zuzendu eta dinamizatzen du. Pertsona horiek Go4Circle fundazioak kontratuak dira: ekonomia zirkularrean

espezializatuta dagoen erakunde bat, outsourcing zuzendaritza- eta idazkaritza-zerbitzuak eskaintzen dituena.

COBERECko kideek eskubide hauek dituzte: aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua, interesen defentsa, beren premietara egokitutako araudiari buruzko informazioa, informazio sektoriala, kontaktu-sare handi bat, prestakuntza-saioak eta sektorean gaitzeko saioak. Nazioarteko azoketara joaten dira eta hitzaldiak ematen dituzte sektorearekin zerikusia duten hainbat



## Re-Use and Recycling European Union Social Enterprises( Belgika)

Berrerabiltzearen eta Birziklatzearen arloko Gizarte Erakundeen Europako Federazioak 26 sare nazional eta eskualdekoak biltzen ditu EBko 14 herrialdetan, eta bikoitza da bere egiteko: hondakinak murriztearen, berrerabiltzearen eta birziklatzearen arloan diharduten gizarte-erakundeak federatzea, ordezkatzea eta garatzea; eta Europan sektoreko helburuak, gizarteari eta ingurumenari lotutakoak, sustatzea, Europako instituzioetan lobby gisa jardunez.

### **Federazio hau Europako proiektuen kudeaketa koordinatzeaz ere**

**arduratzten da,** sareko kide desberdinen artean, baita elkarrizketa tekniko bat garatzeaz ere, sare nazionalen artean, Europa osoan jardunbide onenak trukatu eta sustatzeko. Horretarako, berrerabiltzen, konpontzen eta birziklatzen diharduten gizarte-enpresak ordezkatzeko dituzte. Beren lehentasunak: objektuak, diseinuak berrerabiltzea, onetsitako berrerabiltze-zentroak hobetzea, gizarte-enpresei laguntzea... eta gobernuari azpimarratzea aurrerapauso bat gehiago eman behar dutela hondakinen birziklapena eta kudeaketa sustatzetik harago, hau da, bigarren eskuari lehentasuna ematea.

Bazkideek bazterketa sozioekonomikoa jasateko arriskuan dauden pertsonak enplegatzen dituzte haiei berriro lan-mundura bideratzen laguntzeko. Gainera, prezio merkean itzultzen dituzte produktuak merkatura, diru-sarrera urriko taldeak funtsezko etxetresnez hornitzeko.

140.000 langilek, aprendizek eta boluntarioek part hartzen dute federazio honetako 26 bazkideen jardueretan, Europako eta Estatu Batuetako 24 herrialdetan. Espainian Aeres da bere sarekidea (Ekonomia Soziala eta Solidarioa Berreskuratzeko Espainiako Elkarte).

Hauk dira kideen jardura nagusiak:

- Ehunkiak eta arropa erabilia biltzea, sailkatzea eta birbanatzea.
- Hondakin elektrikoak eta elektronikoak, altzariak eta bolumen handiko beste hondakin batzuk biltzea, konpontzea eta berrerabiltzea.
- Konpostaje-proiektuak etxean eta komunitatean.
- Ongintza eta bigarren eskuko dendak.
- Papera, kartoia, zura, plastikoak, pinturak, metalak, liburuak, jostailuak eta abar biltzea eta birziklatzea.



HANDLE WITH CARE

12 TABEROS  
300 ml c/u

SENE SEMBEL KREMADA  
PISASDA ULU SPKSTERKIZADA  
MADA CON HUMINASA Y D

## Swedish Recycling Industries Association (Suedia)

Suediak zehaztua du zero hondakinen gizarte bat izateko bidea. Horrek aurrerapauso bat gehiago ematera eraman du herrialdea birziklatzearen iraultzan: zaborra hondakindegietan botatzetik birziklatzeraino eta berrerabiltzeraino. Europako birziklatze-tasa onenak dituzte (plastikoaren ia erdira iristen dira) eta ekonomia-eredu zirkular batera aldatzeko gizarte batek egin beharreko portaera-aldaketen oso etsenplu ona dira.

Swedish Recycling Industries Association birziklatzearen arloan diharduten enpresa suediarren erakunde bat da eta Suediako birziklatzearen merkatuan nagusi. Bere

### Hauek dira bere helburu orokorrak:

- Kideak ondo informatuta egotea Suedian eta Europar Batasunean ingurumen- eta birziklatze-gaietan hartzen diren erabaki politikoen prozesuei buruz.
- Konfiantza sortzea politikekiko eta erabakiak hartzeko arduradunekiko.
- Elkartearen bitartez enpresa-kideek eragina dute erabaki politikoetan.
- Birziklatze-zerbitzuak erosten dituzten beste enpresa batzuek Elkarteko kideak aukeratzen dituzte kontratatzaile gisa, ezagutza-maila handi baten, etika onaren eta sinesgarritasun handiaren berme bat direlako.



### Kontuan hartzeko beste erakunde, elkarte eta eragile batzuk hauek dira:

- FEDEREC (Frantzia)
- Greziako Birziklapen Industriaren Federazioa
- Metalak Birziklatzeko Britainia Handiko Elkarte
- Paper Birziklatzearen Industriaren Holandako Federazioa
- Ingurumen Hezkuntzako Espainiako Elkarte
- Espainiako Jasangarritasun eta Arkitektura Elkarte
- Hirien jasangarritasunerako eta aurrerabiderako Elkarte (ASYPS)
- Ekintzaileak Klimaren alde
- EcoUnion
- Europako Batzordea

02



# /Helburuak 2020-2024

Klusterraren premiak, izaera eta oraingo egoera aztertu ondoren, GK Recycling-ek 2020-2024 aldirako martxan jarri nahi dituen estrategiez hitz egiteko garaia iritsi zaigu.

Multzo honetan, beraz, klusterrak 2020-2024 aldian bete behar dituen helburuak ezagutuko dituzue, baita jarduteko ardatz desberdinak, non oinarrituko den estrategia, eta beharrezko ekintzak ere 2020rako helburuak betetze aldera.

Aurreko multzoan aukera izan dugu GK Recycling klusterraren izaera, bere kezak eta premiak, sortzera bultzatu zuten helburuak ezagutzeko, eta azterlan labur bat egin dugu birziklatzearen eta

ingurumenaren sektoreko erreferentziazko eragile nazional eta europar nagusiak erreparasatuz.

Informazio horrekin eta burutu diren ikerlan zehatzekin, ondoko multzoa egituratu ahal izan dugu, eta bertan aurkezten da plan honetako estrategia orokorra. Beraz, hemen ezagutuko ditugu lau urteko aldi horretan klusterrak bete behar dituen helburuak, baita jarduteko ardatz desberdinak, non oinarrituko den estrategia, eta beharrezko ekintzak ere 2020rako helburuak betetze aldera.

## Helburuak 2020-2024

- GK Recycling birziklatzearen sektore nazionala sustatzeko erreferente gisa kokatzea eta nazioartean klusterra hobeto ezagut dadin sustatzea.
- Lankidetzaren publikoa eta pribatua finkatzea ekonomiaren eta ingurumenaren arloan jasangarriak diren berrerabiltzeko eta birziklatzeko ereduak bultzatuz.
- Klusterreko bazkideen lehiakortasuna handitzea eta berrikuntza-prozesuak hobetzea, berrerabiltzeko I+G+Bko lerro berriak sustatuz, produktu berriak sortuz eta materialen kontsumoa efizientea sustatuz.
- Harreman profesionalen eta instituzionalen sare sendoa ezartzea, klusterreko bazkideen eta beste eragile eta erakunde batzuen arteko sinergiak sortzeko eta klusterraren beraren eta sektoreko beste eragile batzuen arteko lankidetzak sortzeko.
- Erreferente izatea sektore jasangarrira eta ekonomia zirkularrera bideratutako enpresa berriak sortzen laguntzeko, baita lehendik daudenak sendotzen laguntzeko, sektorearekin lotutako ikerketa-prozesuetan laguntzeko eta produktu birziklatu berriak sortzen laguntzeko ere.
- Gipuzkoako enpresak gero eta berdeagoak izan daitezen lortzea, jardunbide jasangarriak finkatuz.
- Herritarrak kontzientziatzeko ekintzen nabaritasuna gehitzea, eta, horretarako, sormena, ikusgarritasuna eta herritarrekiko erantzukizuna hobetzeko etengabeko bidea ezartzea.
- Klusterreko bazkideei tresna egokiak ematea sektorearen berritasun nagusietan egunera egoteko.
- Ekonomia Zirkularrari buruzko Nazioarteko Topaketa ekonomia zirkularreko topaketen arloko erreferente nazional gisa finkatzea.

# /Jarduteko ardatzak

GK Recycling klusterraren 2020-2024 estrategia jarduteko ardatz batzuetan egongo da oinarritua. Hala, ardatz horiek baliagarriak izango zaizkigu urte bakoitzeko helburuak betetzeko martxan jarriko diren ekintzen izaera finkatzeko, eta ondorioz, baita lau urteko aldirako planaren helburu nagusiak ere.

Garrantzikoa da aipatzea, jarduteko ardatz independenteak finkatu badira ere, guztiak daudela elkarrekin lotuta, batean ezarritako helburuak lortzeko lagundu egiten baitu beste

baten helburuak lortzen. GK Recycling bezalako kluster batean, irmotze fasean dela kontuan hartuta, garrantzikoa da osotasun baten parte izatea aurrera eramaten diren jarduerak eta estrategiak.

Era berean, ardatz estrategikoak desberdinak izan daitezke urte batetik bestera, emaitza eta premia nabarmenak kontuan hartuta, aurreko epigrafean aipatu dugun bezala.

## 1. ARDATZA

### *Berrikuntza eta lehia- hobekuntza*

Ardatz honetako helburuak izango dira:

- Enpresa berrien, produktu berrien, ikerketa-ildo eta negozio-aukera berrien sorrera bultzatzea.
- Klusterreko enpresei baliabide ekonomikoak lortzen laguntzea, Europako diru-laguntzen bidez.
- GK Recycling klusterreko bazkideen barne-sailkapena hobetzea, tipologiaren eta sektoreen arabera, haien beharretara egokitzen diren tresnak, ekintzak edo prestakuntzak lortzeko.
- Klusterra eta klusterreko bazkideak hornitzaileekin, enpresekin, erakundeekin, inbertsoreekin eta sektoreko eragileekin harremanetan jartzeko sarea hobetzea, proiektu berriak gauzatzeko, bazkideen ekoizpen-prozesuak hobetzeko eta lehiakortasuna areagotzeko.
- Bazkideen artean berrikuntza irekia eta baterako lana sustatzea.
- Denboran etengabea izango bilera-gune bat sortzea, ideiak, esperientziak, arazoaren ebazpena, prestakuntzak edo aholkularitzak trukatzeko.
- Sektorearen, haren produktuen, zerbitzuen, aukeren eta etorkizunerako itxaropenen egungo egoeraren ikuspegi zabala, zehatza eta berariazkoa lortzea.



---

## 2. ARDATZA

*Kanpo-ekintza  
(Ikusgarritasun,  
posizionamendu  
eta nabaritasun  
handiagoa)*

Ardatz honetako helburuak izango dira:

- GK Recycling klusterraren presentzia eta irudia gehitzea sektoreko ekitaldi, azoka eta biltzar nazionaletan zein internazionaletan.
- GK Recycling klusterraren eta haren bazkideen eta sektoreko eragile nazionalen eta internazionalen artean sinergien eta lankidetzen bilaketa sustatzea.
- Ekitaldi baten bidez, sektoreko eragile nagusien, profesionalen, enpresen eta erakundeen topaketarako, esperientzien trukerako eta ikaskuntzarako espazioa sortzea eta finkatzea.

---

## 3. ARDATZA

*Komunikazioa  
eta gizartea*

Ardatz honetako 2020 helburuak izango dira:

- Kontzientziazio-ekintza sortzaileak, nabarmenak eta ikuspen handikoak sortzea —2020an gutxienez ekintza bat egitea—.
- Lurraldeko enpresentzat eskuragarri jartzea jardunbide jasagarriei, birziklatzeari eta ekonomia zirkularrari buruzko informazio garrantzitsua eta aplikagarria.
- GK Recycling klusterrak eta haren bazkideek tokian duten proiektzioa sustatzea.

# /Ekintzak

Ondoren aurkezten diren ekintzak GK Recycling klusterraren premiak aztertzearen eta aurreko atalean ezarritako ardatz estrategikoak eta helburuak aztertzearen emaitza dira.

Ekintzen planteamenduan eta definizioan, markatu nahi izan dugu ekintza bakoitza zer ardatz estrategikori dagokion eta zer helburu betetzen duen. Ekintza horietako bakoitza pentsatuta eta aztertuta dago zenbait helburu zehatz betetzeko, baina, lehen esan dugun moduan, batzuetan helburu bat lortzeak beste helburu bat betetzeko bidea errazten du.

Hori dela eta, ekintza batzuk zenbait ardatz estrategikotan jasota daude, ekintza horiek abian jartzeak betetzen dituen helburuen arabera.

Era berean, ekintza guztiak bazkideen ekarpenak, iradokizunak eta beharrak kontuan hartuta planteatuta daude. Guztiok eta guztiontzat landutako ekintza-plan bat da.

# Aurkezpen ofizialen agenda

2019an aurkezpenak egin eta kontaktuak ezarri badira ere sektoreko eragile nagusietako batzuekin (FER eta EURIC eta Europako Batzordea bera, besteren artean) elkarte eta talde ugari daude birziklatzearen sektorean dihardutenak eta haiekin elkarrizketak izan ditzakegu elkar ezagutza eta lankidetzeta posibleak ahalbidetzeko. Haietako asko erreferenteen atalean adierazten dira.

Erakunde eta eragile horiekiko harremana eta aurkezpenak modu desberdinetan eta testuinguru desberdinekin egingo dira: gonbidapenak Ekonomia Zirkularrari buruzko Nazioarteko Topaketan edo sektoreari eskainitako hitzaldietan parte hartzera, baita bileretan, azoketan eta abarretan ere.

Antzeman ditugun eragileetako batzuk hauek dira, lehenengo multzoan aipatutakoak:

- FEDEREC (Frantzia)
- Greziako Birziklapen Industriaren Federazioa
- Metalak Birziklatzeko Britainia Handiko Elkarte
- Paper Birziklatuaren Industriaren Holandako Federazioa
- Ingurumen Hezkuntzako Espainiako Elkarte
- Espainiako Jasangarritasun eta Arkitektura Elkarte
- Hirien jasangarritasunerako eta aurrerabiderako Elkarte (ASYPS)
- Ekintzaileak Klimaren alde
- EcoUnion
- Europako Batzordea

## Parte den ardatza

- Kanpo-ekintza
- Berrikuntza eta lehia-hobekuntza

## Betetzen dituen helburuak

- GK Recycling klusterraren presentzia eta irudia gehitzea
- Aukeren bilaketa eta sinergien sorrera sustatzea
- Klusterreko enpresei baliabide ekonomikoak lortzen laguntzea, Europako diru-laguntzen bidez.
- Klusterra eta klusterreko bazkideak hornitzaileekin, enpresekin, erakundeekin, inbertsoreekin eta sektoreko eragileekin harremanetan jartzeko sarea hobetzea, proiektu berriak gauzatzeko, bazkideen ekoizpen-prozesuak hobetzeko eta lehiakortasuna areagotzeko.

## Bisita instituzionalak. Alderantzizko eginkizunak

Bazkideei nazioarteko jardunbide onenak erakutsi nahi diegun bezalaxe, gure ustez interesgarria da nazioarteko eragileei ere in situ erakustea zein den Gipuzkoako birziklatzearen sektoreko enpresa- eta erakunde-sarea, eta bazkideen lana, baita klusterrarena berarena ere, haiei ezagutzera ematea. Horregatik, proposatzen da alderantzizko eginkizun bat edo bi egitea, Donostiara erreferentziatzko eragile interesgarriak gonbidatuz.

Bisita horiek zenbait testuingurutan egingo lirateke: Ekonomia Zirkularrari buruzko Nazioarteko Topaketa, hitzaldi-zikloa, bilera estrategikoak, eta abar. Hala ere, ekintza hori behar bezala antolatu ahal izateko, beste ekintza batzuk ere egin beharko dira, hala nola azoketan egotea eta parte hartzea.

<b>Parte den ardatza</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Kanpo-ekintza</li><li>• Komunikazioa eta gizartea</li></ul>
<b>Betetzen dituen helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• GK Recycling klusterraren presentzia eta irudia gehitzea</li><li>• Aukeren bilaketa eta sinergien sorrera sustatzea</li><li>• GK Recycling klusterrak eta haren bazkideek tokian duten proiektzioa sustatzea</li></ul>

## Hautagaitzak aurkeztea

Hautagaitzak aurkeztuko dira Donostia izan dadin biltzar nazionalen eta internazionalen egoitza, hala nola FER azokak urtero antolatzen duen Lehengoratzearen eta Birziklatzearen Biltzar Nazionalarena. Zentzu horretan abantaila bat dugu zeren eta FEReko arduradun gorenak parte hartu baitute Ekonomia Zirkularrari buruzko Nazioarteko I. Topaketan eta Donostiaren ahalmena ikusi ahal izan dute egoitza izateko maila logistikoan nahiz antolamendu-mailan. Gure helburua da Donostia izatea 2021ean Lehengoratzearen eta Birziklatzearen Biltzar Nazionalaren egoitza.

<b>Parte den ardatza</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Kanpo-ekintza</li></ul>
<b>Betetzen dituen helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• GK Recycling klusterraren presentzia eta irudia gehitzea</li><li>• Aukeren bilaketa eta sinergien sorrera sustatzea</li></ul>



## Azoketan, biltzarretan eta ekitaldi nazionaletan eta nazioartekoetan parte hartzea

GK Recycling klusterretik, eta Naturklima Gipuzkoako Klima Aldaketaren Institutuaren kudeaketarekin, klusterreko bazkideek mota horretako ekitaldietan hainbat modutan parte hartzea sustatuko da: standen bidez, bilera paraleloen agenden bidez, klusterreko, Naturklimako edo enpresa bazkideetako arduradunen hitzaldien bidez, tailerren bidez, eta abar.

Horretarako, sektoreko azoka nagusien (nazionalak eta nazioartekoak) benchmarking bat landu da eta haietatik bi nabarmendu ditugu 2020rako interesgarrienak: Ecomondo (Rimini) eta SRR (Madril).

<b>Parte den ardatza</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Kanpo-ekintza</li><li>• Berrikuntza eta lehia-hobekuntza</li></ul>
<b>Betetzen dituen helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• GK Recycling klusterraren presentzia eta irudia gehitzea sektoreko ekitaldi, azoka eta biltzar nazionaletan zein internazionaletan.</li><li>• Klusterra eta klusterreko bazkideak hornitzaileekin, enpresekin, erakundeekin, inbertsoreekin eta sektoreko eragileekin harremanetan jartzeko sarea hobetzea, proiektu berriak gauzatzeko, bazkideen ekoizpen-prozesuak hobetzeko eta lehiakortasuna areagotzeko.</li><li>• Bazkideen artean berrikuntza irekia eta baterako lana sustatzea.</li></ul>

## Azoka nagusiak

### ECOMONDO (Rimini. Italia)

2020ko azaroaren 3tik 6ra

Ecomondo da berrikuntza teknologikoaren eta industrialaren arloko Europako erreferentziako ekitaldia, eremu mediterraneoan liderra. Nazioarteko ekitaldi horrek formatu berritzailea du eta plataforma bakar batean biltzen ditu ekonomia zirkularreko sektore guztiak. Erreferentziako puntua da joera berriak, berrikuntzak eta teknologia berriak ezagutzeko, programa zabal bat eskaintzen baitu helburu nagusizat duena ideiak hedaraztea.

Horretarako, nazioarteko bileren programa bat du eta bertara joaten dira enpresa berritzaileak eta munduan ospea zabaldua duten ikertzaileak, berrikuntzari buruzko eguneratzeak eskaintzeko eta jardunbiderik onenak hedatzeko. Gainera, sektore desberdinak biltzen dituzte, besteak beste, hondakinak eta baliabideak, bioekonomia zirkularra, erreklamazio eta arrisku hidrogeologikoa, ura, eta abar.

Enpresa eta ekintzailetza garatzen laguntzeko programak ere baditu, eta sareak sortzea sustatzen du; horretarako ekonomiaren arloko aditu nagusiekin lan egingo du eta enpresak erosle nazionalekin eta internazionalarekin jarriko ditu harremanetan.

Azoka honetan stand batekin parte har daiteke, baita hitzaldien eta tailerren jardunaldietan ere, azokaren barruan. Sektorean bisitari gehien jasotzen dituen azoka da eta bertan parte hartzeak onura ugari ekarri ahal izango dizkie GK Recycling-eko bazkideei, besteren artean:

- Sektoreko mundu osoko enpresak ezagutzea eta haiekin elkarrekintza aritzea
- Networking-a nazioarteko erosleekin
- Soluzio zehatzak aurkitzea enpresen lehiaren eta hazkundearen inguruan
- Ekonomia zirkularreko jardunbideak, berrikuntza teknologikoak eta merkatuko joerak ezagutzea
- Egunean egotea legegintzako lehentasun berrietan ikerketaren eta garapenaren eremuan

Ecomondo azokarekin batera, KEY ENERGY azoka garatzen da, energiari eskainia: iturri berritzaileak, energia-efizientziako soluzioak eta aplikazioak, Smart city, mugikortasun jasagarria, eta abar.

## ECOMONDO KOPURUTAN...

- 66 herrialdeko nazioarteko bisitariak
- 80.800 pertsona bertaratzen dira batez beste
- 98.000 metro karratu gordin ditu erakusketa-eremuak
- 1.022 erakusle (orain arteko datuak)
- 150 mintegi eta hitzaldi baino gehiago, 1.000tik gora hizlarirekin
- 700 kontaktu baino gehiago hedabideekin





## SRR (Madril. Espainia) 2020ko ekainaren 10etik 12ra

Lehengoratzearen eta Birziklatzearen Nazioarteko Azoka (SSR) Lehengoratzeko eta Birziklatzeko Espainiako Federazioak (FER) eta Automobilak Desegin eta Birziklatzeko Espainiako Elkarteak (AEDRA) sustatzen duen topaketa bat da eta bost urte eskasetan bilakatu da lehengoratzeari eta birziklatzeari buruz egiten den ekitaldi handiena gure herrialdean.

IFEMAk ere antolatzen duen Ingurumen Soluzio Jasangarrien Foroaren (FSMS) barruan, SSR azoka TECMA eta ESCLEAN azokekin batera egiten da, baita MADRILGO HIRIEN FOROAREKIN batera ere.

SRR azokan ikus daiteke ikerketa eta berrikuntza direla birziklatze-sistemak hobetzeko eta prozesuen efizientzia areagotzeko palankarik onenak. Gainera, Europak helburu duen eredu ekonomiko zirkular berriaren sustatzaile nagusiak espazio berean metatzen ditu.

Lehengoratzailak, ekonomiaren eredu-aldaketaren eragile nagusi gisa, azokan elkartu ahal izango dira administrazio publiko desberdinetako Ingurumen-ordezkarri nagusiekin, baita lehengoratzearen eta birziklatzearen arloan zuzenean edo zeharka inplikaturako adituekin eta profesionalekin ere.

Ezagutzak eta esperientziak batzeko ahalmen handiko azoka da. Hala erakusten dute deialdian parte hartzen duten eta inplikutzen diren elkarte, federazio, erakunde eta organismo ugariak —horiek ere deialdiaren antolaketaren parte ere badira, jardunaldien, hitzaldien edo mintegien bidez—.

Oso aukera ona da sektorearen kezkak ezagutzeko eta ezagutza berriak eskuratzeko. Gainera, lehengoratzearen eta birziklatzearen arloko Espainiako networking eta know-how elkarraldi nagusizat hartzen da.

## KOPURUTAN...

- Bisitari profesionalak: 10.010
- Enpresak: 584
- Herrialdeak: 51
- Azokaren hazkundera: % 9,7



SRR\_MADRID\_2019 ETA\_2018



# Hitzaldi-ziklo bat sortzea

Gure nahia da klusterreko bazkideak eta Gipuzkoako enpresak eta herritarrak egunean egotea sektorean izaten diren berritasunei buruz, eta ekonomia zirkularraren, birziklatzearen eta jasangarritasunaren arloko jardunbide onenak haiei ezagutzera ematea. Hartara, urtean bi hitzaldi emango dira gutxienez, bai sektore profesionalari bai herritarrei zuzenduak, hitzaldiekin eta tailerrekin, eta profil nazionalekin eta nazioartekoekin, klusterreko bazkideen eta lurraldeko enpresen eta herritarren ezagutza aberastearren.

Ekintza horrek aukera emango digu, aldi berean, Gipuzkoako ekosistema erakusteko eta Gipuzkoako sektoreko eragile profesionalak sarean jartzeko, beste eragile eta profesional nazional eta nazioarteko batzuekin batera.

## Parte den ardatza

- Berrikuntza eta lehia-hobekuntza

## Betetzen dituen helburuak

- Klusterra eta klusterreko bazkideak hornitzaileekin, enpresekin, erakundeekin, inbertsoreekin eta sektoreko eragileekin harremanetan jartzeko sarea hobetzea, proiektu berriak gauzatzeko, bazkideen ekoizpen-prozesuak hobetzeko eta lehiakortasuna areagotzeko.
- Bazkideen artean berrikuntza irekia eta baterako lana sustatzea.
- Denboran etengabea izango bilera-gune bat sortzea, ideiak, esperientziak, arazoen ebazpena, prestakuntzak edo aholkularitzak trukatzeko.
- Sektorearen, haren produktuen, zerbitzuen, aukeren eta etorkizunerako itzaropenen egungo egoeraren ikuspegi zabala, zehatza eta berariazkoa lortzea.

# Hondakinen Prebentzioko Europako Astea

Urtero bezala, aste honetan zenbait jarduera egingo dira, beste erakunde batzuekin elkarlanean, erabili eta bota oinarri duen egungo ekonomia linealaren eredia eraldatze aldera eta ekonomia zirkular bihurtze aldera. Jarduera horiek urtearen barruan zehaztuko dira eta jada ezagunak diren jarduera batzuk hartuko dituzte barnean, besteak beste: lehengai birziklatuekin lan egiten duten enpresen erakustaldia, birziklatze-kanpaina, berrerrabiltzeko tailerrak edo moda jasangarriaren desfilea.

GK Recycling-en helburua da, 2020ko Hondakinen Prebentzioko Europako Astearen parte hartzeko, ekintza nabarmenak burutzeko, herritarren kontzientziarioan lehena eta geroa markatuko dutenak. Hartara, 2019an eta 2020an, hainbat kolektiborekin eta profesionalekin lan egingo da.

<b>Parte den ardatza</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Komunikazioa eta gizartea</li></ul>
<b>Betetzen dituen helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Kontzientziario-ekintza sortzaileak, nabarmenak eta ikuspen handikoak sortzea -2020an gutxienez ekintza bat egitea-.</li><li>• Lurraldeko enpresentzat eskuragarri jartzea jardunbide jasangarriari, birziklatzeari eta ekonomia zirkularri buruzko informazio garrantzitsua eta aplikagarria.</li><li>• GK Recycling klusterrak eta haren bazkideek tokian duten proiektzioa sustatzea.</li></ul>



# Ekonomia Zirkularrari buruzko II. Nazioarteko Topaketa

Hirugarren urtez jarraian, Ekonomia Zirkularrari buruzko Nazioarteko Topaketa antolatuko dute Gipuzkoako Aldundiko Ingurumen Departamentuak eta GK Recycling klusterrak.

Aurtengo helburua da lehen mailako hizlari eta gonbidatu nazionalen eta nazioarteko esperientziak eta ikuspuntuak ezagutzea, eta trukerako gune bat sortzea klusterreko kideen eta nazioarteko adituen artean. Era berean, Topaketan GK Recycling klusterreko enpresa desberdinak bisitatuko ditu nazioarteko ordezkariak batek.

## Parte den ardatza

- Kanpo-ekintza
- Komunikazioa eta gizartea
- Berrikuntza eta lehia

## Betetzen dituen helburuak

- Klusterra eta klusterreko bazkideak hornitzaileekin, enprekin, erakundeekin, inbertsoreekin eta sektoreko eragileekin harremanetan jartzeko sarea hobetzea, proiektu berriak gauzatzeko, bazkideen ekoizpen-prozesuak hobetzeko eta lehiakortasuna areagotzeko.
- Bazkideen artean berrikuntza irekia eta baterako lana sustatzea.
- Denboran etengabea izango bilera-gune bat sortzea, ideiak, esperientziak, arazoaren ebazpena, prestakuntzak edo aholkularitzak trukatzeko.
- Sektorearen, haren produktuen, zerbitzuen, aukeren eta etorkizunerako itzaropenen egungo egoeraren ikuspegi zabala, zehatza eta berriazkoa lortzea.
- GK Recycling klusterraren eta haren bazkideen eta sektoreko eragile nazionalen eta internazionalen artean sinergien eta lankidetzen bilaketa sustatzea.
- Ekitaldi baten bidez, sektoreko eragile nagusien, profesionalen, enpresen eta erakundeen topaketarako, esperientzien trukerako eta ikaskuntzarako espazioa sortzea eta finkatzea.
- Lurraldeko enpresentzat eskuragarri jartzea jardunbide jasangarriari, birziklatzeari eta ekonomia zirkularrari buruzko informazio garrantzitsua eta aplikagarria.
- GK Recycling klusterrak eta haren bazkideek tokian duten proiektzioa sustatzea.

1/30  
STIA  
EBASTIÁN

ZIENTZIA  
GIA PARKEA

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ingurumeneko eta Oinarri  
Erabilerako Departamentua



ORAIN  
INGURUMENA



### EKONOMIA ZIRKULARRARI BURUZKO NAZIOARTEKO TOPAKETA

EKONOMIARAKO ETA  
ENPLEGURAKO EKONOMIA  
ZIRKULARRAREN  
ABANTAILAK EUROPAKO  
HEGOALDEAN

### ENCUENTRO INTERNACIONAL SOBRE ECONOMÍA CIRCULAR

VENTAJAS DE LA  
ECONOMÍA CIRCULAR  
PARA LA ECONOMÍA  
Y EL EMPLEO EN EL  
SUR DE EUROPA

### INTERNATIONAL CIRCULAR ECONOMY MEETING

ADVANTAGES OF THE  
CIRCULAR ECONOMY  
FOR ECONOMY AND  
EMPLOYMENT IN  
SOUTHERN EUROPE

#EIECGipuzkoa2019



EKONOMIA ZIRKULARRARI BURUZKO I. NAZIOARTEKO TOPAKETA

# Enpresa-erronkak, lehiaketa

Naturklimak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuaren eta GK Recycling klusterraren babesarekin, abian jarriko du programaren lehen ekitaldia: enpresa-erronkak klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz.

Programa horren helburua da Gipuzkoako lurraldeko enpresa txikiei eta ertainei laguntzea haien eguneroko funtzionamenduan aurre egin beharreko erronkak konpontzen, betiere enpresa barruan zein kanpoan talentua bilatuz. Horrek aukera emango die lehiakortasuna hobetzeko eta lurraldean klima-aldaketari aurrea hartzen eta aurre egiten lagunduko duten negozio-ideia berriak garatzeko.

Programa horrek bultzatu nahi duen eredua barne-berrikuntzan eta berrikuntza irekian oinarrituta dago, baita ekonomia zirkularraren inguruko enpresa-erronkei heltzea ere. Hiru enpresa sarituko dira, proposamen berritzaileenak aurkezten dituztenak eta beren instalazioetan martxan jarri ahal izango dituztenak. Dirutan ez ezik, Naturklimaren laguntza-programa batekin ere sarituko dira hiru enpresak, negozio-ideia abian jartzeko.

## Parte den ardatza

- Berrikuntza eta lehia-hobekuntza
- Komunikazioa eta gizartea

## Betetzen dituen helburuak

- Enpresa berrien, produktu berrien eta ikerketa-ildo berrien sorrera bultzatzea.
- GK Recycling klusterrak eta haren bazkideek tokian duten

## Identifikazio-estrategia eta merkatuaren analisisa

GK Recycling klusterreko bazkideek finkatutako premietako bat izan da Gipuzkoan diharduten sektoreak, materialak, eta hondakinak identifikatuko dituen estrategia bat sortu beharra, horien potentziala azter dadin eta material horiek zenbait sektoretan txertatzeko aukerak azter daitezzen. Zer sortu behar dugu? Zer sor dezakegu? Zer sektorek erabil ditzakete material berri horiek edo jada ekoitzi diren material horiek? Material horiek birziklatu gabeko beste batzuk ordezkatu ditzakete? Eta abar. Aliantzak sortzea sektorearen barruan eta Gipuzkoako birziklatzearen ekosistemaren parte ez diren beste sektore batzuekin, gure bazkideen lehiakortasuna hobetze aldera.

<b>Parte den ardatza</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Berrikuntza eta lehia-hobekuntza</li></ul>
<b>Betetzen dituen helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Enpresa berrien, produktu berrien, ikerketa-ildo eta negozio-aukera berrien sorrera bultzatzea.</li><li>• Klusterra eta klusterreko bazkideak hornitzaileekin, enpresekin, erakundeekin, inbertsoreekin eta sektoreko eragileekin harremanetan jartzeko sarea hobetzea, proiektu berriak gauzatzeko, bazkideen ekoizpen-prozesuak hobetzeko eta lehiakortasuna areagotzeko.</li><li>• Sektorearen, haren produktuen, zerbitzuen, aukeren eta etorkizunerako itxaropenen egungo egoeraren ikuspegi zabala, zehatza eta berariazkoa lortzea.</li></ul>

## Aurreikuspeni eta etorkizunari buruzko txostena

Bazkide batzuek adierazi dute birziklatzearen arloko etorkizuneko joerak eta zenbatespenak aurkezten dituzten txostenetan lan egiteko interesa dutela. Hori dela eta, planteatutako ekintzetako bat izango da birziklatzeko, berrerabiltzeko eta hondakinak kudeatzeko joerak jasoko dituen txosten bat sortzea. Zehazteke dago txosten horren aldizkakotasuna. Txosten hori bazkideen elkarlan estuarekin sortuko da eta baliagarria izango da etorkizuneko planteamenduetarako eta estrategietarako.

<b>Parte den ardatza</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Berrikuntza eta lehia-hobekuntza</li></ul>
<b>Betetzen dituen helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Enpresa berrien, produktu berrien, ikerketa-ildo eta negozio-aukera berrien sorrera bultzatzea.</li><li>• Bazkideen artean berrikuntza irekia eta baterako lana sustatzea.</li><li>• Sektorearen, haren produktuen, zerbitzuen, aukeren eta etorkizunerako itxaropenen egungo egoeraren ikuspegi zabala, zehatza eta berariazkoa lortzea.</li></ul>



## Bileren egutegia sortzea

Bazkideekin aurrez aurreko informazio-fluxua etengabeari eustea funtsezkoa da haien egunerokotasuna eta premiak zein diren ezagutzeko. Horregatik, GK Recycling klusterrak urtean egin beharreko aldizkako bileren egutegia sortuko du, eta bilera horiek baliatuko dira gaurkotasuneko hainbat gai lantzeko, arazoak eta egoerak azaltzeko edo enpresen berrikuntzak aurkezteko. Azken batean, esperientziak eta ezagutzak trukatzeko espazio bat sortu nahi da, barne-elkarrizketa egin ahal izateko. Horrenbestez, eta topaketa horiek emankorrak izan daitezen, bazkideen eta haien interesen egoerari buruzko aurretiazko analisia egingo da.

<b>Parte den ardatza</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Berrikuntza eta lehia-hobekuntza</li></ul>
<b>Betetzen dituen helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Klusterra eta klusterreko bazkideak hornitzaileekin, enprekin, erakundeekin, inbertsoreekin eta sektoreko eragileekin harremanetan jartzeko sarea hobetzea, proiektu berriak gauzatzeko, bazkideen ekoizpen-prozesuak hobetzeko eta lehiakortasuna areagotzeko.</li><li>• Bazkideen artean berrikuntza irekia eta baterako lana sustatzea.</li><li>• Denboran etengabea izango bilera-gune bat sortzea, ideiak, esperientziak, arazoan ebazpena, prestakuntzak edo aholkularitzak trukatzeko.</li><li>• Sektorearen, haren produktuen, zerbitzuen, aukeren eta etorkizunerako itxaropenen egungo egoeraren ikuspegi zabala, zehatza eta berariazkoa lortzea.</li></ul>

## Bazkideen barne-sailkapenaren optimizazioa

Arreta eta ekintza egokituak eskaintzea da bazkideetako batzuek adierazi duten premietako bat. Horretarako, ezinbestekoa izango da bazkideen barne-sailkapena birplanteatzea.

Hori dela eta, datozen hilabeteetan bazkideak klusterraren barruan sailkatuta dauden modua birplanteatuko da (produktuaren tipologia, izaera, eta abar), prestakuntza-ekintzak eta beste jardunaldi batzuk ahalik eta gehien egoki daitezen norberaren beharretara.

<b>Parte den ardatza</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Berrikuntza eta lehia-hobekuntza</li></ul>
<b>Betetzen dituen helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• GK Recycling klusterreko bazkideen barne-sailkapena hobetzea, tipologiaren eta sektoreen arabera, haien beharretara egokitzen diren tresnak, ekintzak edo prestakuntzak lortzeko.</li><li>• Sektorearen, haren produktuen, zerbitzuen, aukeren eta etorkizunerako itxaropenen egungo egoeraren ikuspegi zabala, zehatza eta berariazkoa lortzea.</li></ul>

## Departamentuaren web-gunea berrikustea

GK Recycling-ek Ingurumen Departamentuaren web-gunean klusterrari buruz dagoen informazioa berrikusiko du, informazioa optimizatzeko eta zabaltzeko. Hona hemen pixkanaka gehitu nahi diren gauzetako batzuk:

- Bazkideen zerrenda, haien deskribapena eta haien web-orrialdeetarako estekak.
- Katalogoaren etengabeko eguneraketa.
- Urtearen barruan sortzen diren kontzientziazio- eta dibulgazio-material grafikoak.
- Ekintza itxien egutegia.
- Plan estrategikoa, eta planak denboran izan ditzakeen aldaketak.

### Parte den ardatza

- Berrikuntza eta lehia-hobekuntza
- Komunikazioa eta gizartea

### Betetzen dituen helburuak

- GK Recycling klusterreko bazkideen barne-sailkapena hobetzea, tipologiaren eta sektoreen arabera, haien beharretara egokitzen diren tresnak, ekintzak edo prestakuntzak lortzeko.
- Lurraldeko enpresentzat eskuragarri jartzea jardunbide jasangarriei, birziklatzeari eta ekonomia zirkularrari buruzko informazio garrantzitsua eta aplikagarria.
- GK Recycling klusterrak eta haren bazkideek tokian duten proiektzioa sustatzea.

## Bi hilean behingo newsletter-a

GK Recycling-ek bazkideei zuzendutako newsletter bat sortuko du datozen hiletan, sektorearen nazioko eta nazioarteko berrikuntza nagusiei buruzko informazioa emateko. Newsletter hori bi hilean behin bidaltzea pentsatzen da, baita beharrezkoa den guztietan ere, proiektu, diru-laguntza, prestakuntza, barne-bilera eta unean uneko aukeren berri emateko.

### Parte den ardatza

- Berrikuntza eta lehia-hobekuntza

### Betetzen dituen helburuak

- Bazkideen artean berrikuntza irekia eta baterako lana sustatzea.
- Klusterreko enpresei baliabide ekonomikoak lortzen laguntzea, Europako diru-laguntzen bidez.
- Denboran etengabea izango bilera-gune bat sortzea, ideiak, esperientziak, arazoaren ebazpena, prestakuntzak edo aholkularitzak trukatzeko.

# Enpresei zuzendutako dibulgazio-kanpaina

Gipuzkoako enpresak gero eta jasangarriagoak izan daitezzen nahi dugu, eta iruditzen zaigu, askotan, planteamendu hori ez dela behar den lekura iristen, informazio faltagatik.

Gipuzkoako enpresa askok oraindik ez dute planteatu jasangarritasunaren arloko prozesuak, produktuak edo zerbitzuak handitzea eta optimizatzea; ez dituzte ezagutzen birziklatzeak eskaintzen dizkien abantailak eta aukerak. Hori dela eta, Gipuzkoako enpresei zuzendutako dibulgazio-kanpaina bat sortzea proposatzen dugu. Kanpaina horren bidez jorratuko den mezua lotuta egongo da ekoizpen jasangarriak edo haien prozesuetan birziklatutako materialak erabiltzeak ematen dizkien aukerekin eta abantailekin.

## Parte den ardatza

- Berrikuntza eta lehia-hobekuntza
- Komunikazioa eta gizarte

## Betetzen dituen helburuak

- Klusterra eta klusterreko bazkideak hornitzaileekin, enpresekin, erakundeekin, inbertsoreekin eta sektoreko eragileekin harremanetan jartzeko sarea hobetzea, proiektu berriak gauzatzeko, bazkideen ekoizpen-prozesuak hobetzeko eta lehiakortasuna areagotzeko.
- Sektorearen, haren produktuen, zerbitzuen, aukeren eta etorkizunerako itxaropenen egungo egoeraren ikuspegi zabala, zehatza eta berariazkoa lortzea.
- Lurraldeko enpresentzat eskuragarri jartzea jardunbide jasangarriei, birziklatzeari eta ekonomia zirkularri buruzko informazio garrantzitsua eta aplikagarria.
- GK Recycling klusterrak eta haren bazkideek tokian duten proiektzioa sustatzea.

## Analisisa: GK Recycling trakzio-taldea

GK Recycling-eko bazkideek planteatutako beharretako bat izan zen klusterraren egunerokotasuna suspertzeaz arduratuko den talde bat sortzea. Gipuzkoako birziklapenaren ekosistema, bertako enpresak, klusterreko enpresa bazkideak eta horien egunerokotasuna ezagutzen duen talde edo pertsona bat. Talde edo pertsona hori baliagarria izango da bazkideen arteko loturak sortzeko, baita kanpoko eragileekin loturak sortzeko ere.

Hori dela eta, datozen hiletan, GK Recycling klusterrak azterlan bat egingo du, trakzio-talde hori sortzearen aukera baloratzeko eta, hartara, bazkideen eskaerei erantzuteko.

### Parte den ardatza

- Berrikuntza eta lehia-hobekuntza

### Betetzen dituen helburuak

- Enpresa berrien, produktu berrien, ikerketa-ildo eta negozio-aukera berrien sorrera bultzatzea.
- Klusterreko enpresei baliabide ekonomikoak lortzen laguntzea, Europako diru-laguntzen bidez.
- Klusterra eta klusterreko bazkideak hornitzaileekin, enpresekin, erakundeekin, inbertsoreekin eta sektoreko eragileekin harremanetan jartzeko sarea hobetzea, proiektu berriak gauzatzeko, bazkideen ekoizpen-prozesuak hobetzeko eta lehiakortasuna areagotzeko.
- Bazkideen artean berrikuntza irekia eta baterako lana sustatzea.
- Sektorearen, haren produktuen, zerbitzuen, aukeren eta etorkizunerako itzaropenen egungo egoeraren ikuspegi zabala, zehatza eta berariazkoa lortzea.

